



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.02.18

Jarduneko Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria

Ez dira bertaratu:
Begoña Tolosa Mendia
Xabier Balerdi Tolosa

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko otsailaren hemezortzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko otsailaren 11ko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea Beotibar pilotalekuko ostalaritza-eraikinaren jabari publikoko emakidaren gainean eratu beharreko hipoteka.
3. 2020/265 dekretuaren berri ematea: 2019/68 eta 2019/69 faktura zerrendak.
4. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra (2020/208-2020/254).

1. 2020KO OTSAILAREN 11KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko otsailaren 11an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA BEOTIBAR PILOTALEKUKO OSTALARITZA-ERAIKINAREN JABARI PUBLIKOKO EMAKIDAREN GAINEAN ERATU BEHARREKO HIPOTEKA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Xedea	Beotibar pilotalekuko ostalaritza-eraikinaren jabari publikoko emakida, jatetxe eta kafetegi gisa ustiatzeko.
-------	---



TOLOSAKO
UDALA

Unitate tramitatuzailea	Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisaila
Espedientea	2019CONC0001

Txosten hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera egin da. Bertan, udal idazkariari ematen zaio kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna.

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko abenduaren 28an egindako bilkuran, espedientea onartu eta aipatutako kontratuaren lizitazioa hasi zuen. Era berean, lizitazio hori arautuko zuten Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua onartu zituen. 2019ko urtarrilaren 14an, lizitazio horren iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatuzailearen Profilean, eta interesdunei 60 egun naturaleko epea eman zitzaizen beren proposamenak aurkezteko, ABPPan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Behin proposamenak aurkezteko epea amaituta, 2019ko martxoaren 25ean, kontratazio-mahaia bildu zen, aipatutako kontratuaren "1" gutun-azalean jasotako dokumentazioa ireki eta kalifikatzeko. Mahaiak aurkeztutako proposamenak ireki zituen, Udaleko erregistroan proposamenak aurkezteko hurrenkerari jarraituz. Honako hauek izan ziren:

- AZKONARRA, S.L. (B-75216093).
- SAN COSME Y SAN DAMIÁN, S.L. (B-20611472).
- Eratu beharreko ABEE: ORBELA TABERNA, S.L. (B-75160812) eta Sonia Tapia Iglesias (XXX8237X-X)

Hirugarrena.- Prozedura osoa legez ezarritakoaren arabera egin ondoren, 2019ko ekainaren 21ean, 2019/1065 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, aipatutako kontratua ORBELA TABERNA Y SONIA TAPIA, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, FRONTON U.T.E. (IFK: U-75221770) enpresari esleitu zitzaion. Esleipen hori indarrean dagoen legediaren arabera argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatuzailearen Profilean. 2019ko uztailaren 1ean, dagokion kontratua sinatu zen.

Laugarrena.- 2019ko abuztuaren 5ean, Udalaren erregistro orokorrean sartu zen Egoitz Goikoetxea Artola jaunak ORBELA TABERNA Y SONIA TAPIA, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, FRONTON U.T.E. (IFK: U-75221770) enpresaren izenean eta ordezkartzan aurkeztutako 6827 sarrera-zenbakia duen idazki bat. Idazki horretan, erreferentziako esleipenaren ziurtagiria egiteko eskatu zuen, finantza-erakunde batek



TOLOSAKO
UDALA

emakida hori erregistratu ahal izan zezan. Ziurtagiri hori udal idazkariak eman zuen, 2019ko irailaren 13an.

Bosgarrena.- 2020ko urtarrilaren 24an, Ramón Antoñana Otaño jaunak, BANKOA SAre izenean eta hura ordezkatzuz, aurkeztutako idazki bat sartu zen Udaleko erregistro orokorrean (1002 sarrera-zenbakia). Eskaera horretan, Iker Ariznabarreta jaunak emandako ziurtagiria aurkeztu zuen, eta hark dio Bankoa Credit Agricole erakundearen Tolosako bulegoko ahalduna dela. Ziurtagiri horretan honako hau adierazten du:

“Bankoa ha autorizado un préstamo para las reformas del edificio Frontón a Orbela Taberna y Sonia Tapia UTE con CIF: U75221770, con las siguientes características

- Importe máximo: 600.000 €*
- Plazo máximo: 11 años*
- Prenda – garantía de la concesión administrativa concedida por el Ayuntamiento de Tolosa para la explotación a 30 años del negocio del edificio Frontón.*

Solicitamos al Ayuntamiento de Tolosa autorización para poder coger la garantía de dicha concesión en la operación notarial a firmar”.

Era berean, Merkataritza Erregistroko ohar soila aurkeztu zuen, non jasotzen baita emakida Sonia Tapia Iglesias eta Orbela Taberna, SLren izenean inskribatu zela.

III.- OINARRI JURIDIKOAK

1. Administrazio Klausula Partikularren Plegua

Aipatutako lizitazioa arautzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Pleguak, 6. puntuan, obren, instalazioen eta ekipamenduaren finantzaketari dagokionez (AKPPren 9. orrialdea), honako hau ezartzen du:

El Ayuntamiento de Tolosa no avalará ningún tipo de empréstito, ni participará en forma alguna en la financiación de la concesión.

...

*La constitución de cargas y gravámenes sobre el derecho real de la concesión requerirá **autorización expresa y previa** de la Administración concedente. A tal fin, **el concesionario presentará su solicitud, junto con la justificación de la misma y un estudio económico**, ante el Ayuntamiento de Tolosa, quien, a la vista de la documentación presentada, y de las circunstancias que estime procedentes, responderá. En ningún caso podrán ser objeto de carga o gravamen los bienes sobre los que recae la concesión.*

En cualquier caso, el concesionario debe garantizar, mediante la aportación de la correspondiente documentación, que las cargas y gravámenes que pudieran haberse constituido estarán cancelados tres años antes de la fecha fijada para la reversión.

Se prohíbe la constitución de cualquier carga o gravamen sobre la concesión durante los últimos tres años de su plazo de vigencia.



TOLOSAKO
UDALA

Halaber, puntuaren e) letran honako hau ezartzen da, emakidadunaren eskubideei dagokionez:

Hipotecar la concesión, previa autorización expresa del Ayuntamiento en los términos del presente pliego.

Bestalde, 25. puntuan (AKPPren 45. orrialdea) honako hau ezartzen da emakida azkentzeari dagokionez:

Las obras, instalaciones y servicios, así como todo el mobiliario y equipamiento, revertirán al Ayuntamiento en su totalidad, en perfecto estado de conservación y libre de cargas y gravámenes, a la finalización del contrato.

2.- EHA/2899/2011 Agindua, urriaren 28koa, banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroa babesteari buruzkoa

Urriaren 28ko EHA/2899/2011 Aginduak, banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroa babesteari buruzkoak, honako hau ezartzen du 22. artikuluan, gerora Espainiako Bankuaren 5/2012 zirkularrak garatuta:

Artículo 22. Ficha de Información Personalizada.

*1. Las entidades de crédito, una vez que el cliente haya facilitado la información que se precise sobre sus necesidades de financiación, su situación financiera y sus preferencias, proporcionarán a este la información personalizada que resulte necesaria para dar respuesta a su demanda de crédito, de forma que le permita comparar los préstamos disponibles en el mercado, valorar sus implicaciones y adoptar una decisión fundada sobre si debe o no suscribir el contrato. **Esta información se facilitará mediante la Ficha de Información Personalizada (FIPER) que figura en el anexo II.***

2. La Ficha de Información Personalizada se entregará a todos los clientes de préstamos, de forma gratuita, con la debida antelación y, en todo caso, antes de que el cliente quede vinculado por cualquier contrato u oferta. 3. Toda información adicional que la entidad facilite al cliente figurará en un documento separado, que deberá adjuntarse a la Ficha de Información Personalizada.

Artículo 23. Oferta vinculante.

1. Una vez el cliente y la entidad hayan mostrado su voluntad de contratar un determinado servicio bancario de préstamo hipotecario, se disponga de la tasación correspondiente del inmueble y se hayan efectuado las oportunas comprobaciones sobre su situación registral y sobre la capacidad financiera del cliente conforme a lo dispuesto en el artículo 18, este podrá solicitar a la entidad la entrega de una oferta vinculante.

*2. **La oferta vinculante se facilitará mediante una Ficha de Información Personalizada** como la que figura en el Anexo II en la que, adicionalmente, se especificará lo siguiente: a) Que se trata de una oferta vinculante. b) El plazo de vigencia de dicha oferta.*

3. Toda información adicional que la entidad facilite al cliente en la oferta vinculante figurará en un documento separado, que deberá adjuntarse a la Ficha de Información Personalizada.



TOLOSAKO
UDALA

4. Si la oferta vinculante se hace al mismo tiempo que se entrega la Ficha de Información Personalizada y coincide íntegramente en cuanto a su contenido, podrá facilitarse al cliente en un único documento.

5. Salvo que medien circunstancias extraordinarias o no imputables a la entidad, la oferta vinculante tendrá un plazo de validez no inferior a catorce días naturales desde su fecha de entrega.

Nahiz eta agindu horrek honako hau ezartzen duen, "La presente orden será de aplicación a los servicios bancarios dirigidos o prestados a clientes, o clientes potenciales, en territorio español por entidades de crédito españolas o sucursales de entidades de crédito extranjeras. Se entenderá, a estos efectos, por clientes y clientes potenciales **a las personas físicas.**", Udal honek balorazioa egin dezan, ulertzen da enpresak lizitazioaren unean egindako proposamena, non azterketa ekonomiko oso bat egiten baitzen emakidaren denbora osoan, eskatutakoaren parekoa dela.

IV. ONDORIOAK

1. Eskatutako zenbatekoa

Enpresak lizitaziora aurkeztu zuen "emakidaren plan ekonomiko-finantzarioa" izeneko dokumentuan koadro bat jasotzen da, eta bertan adierazten da obrarako besteren finantzaketara joko duela, Bankoari eskatuko dion 600.000 eurotan zehaztuta. Hau da, bere proposamenean aurkeztutako zenbatekoa bat dator finantza-erakundeak orain ziurtatutako kopuruarekin, eta hori da eskaera honen xedea.

2.- Amortizazio-aldia

Bestalde, maileguaren amortizazio-aldiari dagokionez, eskabidean 11 urteko epea aipatzen da, eta enpresak lizitaziora aurkeztu zuen "emakidaren plan ekonomiko-finantzarioa" izeneko dokumentuaren balantzeetan, 10. urterako egindako aurreikuspenean, Bankoarekiko epe luzeko zorrak 0 izango direla jasotzen da, hau da, mailegua amortizatuta egongo dela 10 urteko epe hori ostalaritza-establezimendua funtzionatzen hasten den aldiari dagokio, lehenengo urtean dagozkion egokitzapen-obra egingo baitira. Beraz, eskatutako epea bat dator lizitazioan aurkeztutako dokumentazioarekin.

3.- Prenda

Agerian geratu da, ABPPetan xedatutakoaren arabera, esleipendunak emakida hipotekatu ahal izango duela, Udalak baldintza-pleguan ezarritakoaren arabera berriazko baimena eman ondoren. Nolanahi ere, emakidadunak bermatu beharko du eratu ahal izan diren kargak eta zergak ezeztatuta egongo direla itzulketarako finkatutako data baino hiru urte lehenago (2049ko ekainaren 30a). Era berean, debekatuta dago emakidaren gaineko edozein karga edo zerga eratzea haren indarraldiaren azken hiru urteetan.



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, zeinak udal kontuhartzailearen oniritzia duen, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako eskaera ikusita eta kontuan hartuz egindako eskaera bat datorrela esleipendunak aipatutako kontratuaren lizitazioan aurkeztutako proposamenarekin, eskatutakoaren aldeko ebazpena onartzea; eta horrenbestez, Beotibar pilotalekuko ostalaritza-erakinaren jabari publikoko emakidaren gainean eratu nahi den hipoteka onartzea, gehienez 600.000 euroko zenbatekoan eta hamaika urteko eperako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari eta Kontuhartzailetzari.

3. 2020/265 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: 2019/68 ETA 2019/69 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2020/265 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/0265

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

68. zenbakia duena, 3.953,54 eurokoa.

69. zenbakia duena, 926.168,13 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

68. zenbakia duena, 3.953,54 eurokoa.

69. zenbakia duena, 926.168,13 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko otsailaren 10ean

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URTARRILAREN 31TIK OTSAILAREN 6RA (2020/208-2020/254).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra bitartean (DK 2020/208-2020/254) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
208	2020	31/01/2020	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 18-20, 1D-E ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
209	2020	31/01/2020	IDAZKARITZA	2019IUDK0009 ESPEDIENTEAN ERAGINDAKO KALTEEN ZENBATEKKOA ESKATZEA
210	2020	31/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	GLLEN KONTURA ORDAINKETAK EGITEA NORBERAREN BEHARRIZANAK ETA ZORPETZE KONTZEPTUAK
211	2020	31/01/2020	FESTAK	LARRAMENDI BIZIRIK AUZO ELKARTEARI 2019KO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA.
212	2020	31/01/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 31(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA.
213	2020	31/01/2020	HIRIGINTZA	APATTAKO 18.1 (TOLOSA)-IBARRAKO LURSAILA. SUSTATZAILEARI ERREKERIMENDUA
214	2020	31/01/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B13 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA
215	2020	31/01/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B13 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA EMATEA
216	2020	31/01/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0027 ESPEDIENTEAN ATZERA EGIN DUELA DEKLARATZEA
217	2020	31/01/2020	PERTSONALA	A.I.Z. 2019KO OPORREN ESKAERAREN ERANTZUNA
218	2020	31/01/2020	PERTSONALA	E. Z.F. (2019KO OPORREN ESKAERAREN ERANTZUNA)
219	2020	31/01/2020	PERTSONALA	D.M.S. (ESKAERAREN ERANTZUNA)
220	2020	31/01/2020	HIRIGINTZA	LARRAMENDI 11-5D ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEA BARNE-BANAKETAREKIN
221	2020	31/01/2020	PERTSONALA	GOI KATEGORIA OSAGARRIA ORDAINTZEA I.G.M UDALTZAINARI
222	2020	31/01/2020	PERTSONALA	GOI KATEGORIA OSAGARRIA ORDAINTZEA D.R.C UDALTZAINARI
223	2020	03/02/2020	PERTSONALA	UDALTZAINEN PRIMAN ESKAERAREN ERANTZUNA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
224	2020	03/02/2020	HIRIGINTZA	IRUÑA ETORBIDEA 26 ARAXES PAPER FABRIKAKO KANPOKO ALDEAN SEGURTASUNA BERMATZEKO EXEKUZIO AGINDUA BIALTZEA
225	2020	03/02/2020	UDALTZAINGOA	BABES ZIBILARENTZAT HORNIDURA FONDOA
226	2020	03/02/2020	UDALTZAINGOA	UDALTZAINGOARENTZAT HORNIDURA FONDOA
227	2020	03/02/2020	FESTAK	J.A.F.G-I OTSAILAREN 4TIK 9RA SAN ESTEBAN AUZOAN CIRCO EUROPA INSTALATZEKO BAIMENA EZ EMATEA.
228	2020	04/02/2020	HIRIGINTZA	NAFARROA ETORBIDEA 2-1B ETXEBIZITZAN ERREFORMAK EGITEA BARNE-BANAKETAREKIN
229	2020	04/02/2020	PERTSONALA	M.A. A. R.-EN ESKAERAREN ERANTZUNA
230	2020	04/02/2020	HIRIGINTZA	SAN BLAS AUZOAN ARGI INDAR KANALIZAZIOA EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
231	2020	04/02/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 7-1GO ESKUINEKO OBRARI LEHEN ERABILERAKO BAIMENA EMATEA
232	2020	04/02/2020	KONTUHARTZAILETA	TRAKZIO MEKANIKOA DUTEN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN 2020KO ERROLDA ONARPENA ETA ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA.
233	2020	04/02/2020	PERTSONALA	X.G.B. (INFORMATIKAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA)
234	2020	04/02/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0017 ESPEDIENTEAN KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA
235	2020	04/02/2020	HIRIGINTZA	BEDAIOKO LARRAÑETA BASERRIAREN ONDOKO BORDAN EGITEN ARI DIREN LANAK ETETZEKO AGINDUA
236	2020	04/02/2020	IDAZKARITZA	2019KO ASFALTO-OBRAK ESLEITZEA
237	2020	05/02/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 28KO JABEKIDEEI 2019/2130 DEKRETU BIDEZ BIGARREN ATALEAN ESKATUTAKO OBREN LEGEZTAPENA EGITEKO HIRU HILABETEKO EPEA EZARTZEA
238	2020	05/02/2020	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 32 BEHEKO "TXINPARTA" ELKARTE GASTRONOMIKOA IXTEKO AGINDUA
239	2020	05/02/2020	HIRIGINTZA	ISURKETA BAIMENA EMATEA USABAL 207.EAN
240	2020	05/02/2020	PERTSONALA	LIBURUTEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (ONARTUAK ETA AZTERKETA EGUNA)



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
241	2020	05/02/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0025 ESPEDIENTEAN PROEBA TESTIFIKALA ESKATZEA.
242	2020	05/02/2020	PERTSONALA	A.M.Z. (AZAROKO NOMINAREN LASARTEKO UDALARI ESKATU)
243	2020	05/02/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 13 BEHEAN ERROTULOA JARZEKO ESKAERARI EZEZKOA ESATEA
244	2020	06/02/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0014 ESPEDIENTEAN ABOKATUA IZENDATZEA
245	2020	06/02/2020	FESTAK	UDABERRI DANTZA TALDEARI 2020KO OTSAILAREN 22AN, ZALDUNITA BEZPERAN, DANTZARI TXIKIEN KALEJIRA ANTOLATZEKO BAIMENA EMATEA.
246	2020	06/02/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 50AB-52AB JABEKIDEI ERREKERIMENDUA BIALTZEA
247	2020	06/02/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0003 ESPEDIENTEAREN KALTE ERREKLAMAZIOA ONARTZEA
248	2020	06/02/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 33-3A ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
249	2020	06/02/2020	UDALTAINGOA	URTE GUZTIKO OSTALARITZA ORDUTEGI LUZAPENA
250	2020	06/02/2020	KONTUHARTZAILITZA	ZATIKAPENAK 2019KZZG0056
251	2020	06/02/2020	KONTUHARTZAILITZA	ZATIKAPENAK 2019KZZG0059
252	2020	06/02/2020	KONTUHARTZAILITZA	ZATIKAPENAK 2020KZZG0001
253	2020	06/02/2020	IDAZKARITZA	UZTURRE 23-3B ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENENKO PREZIOA ESKATZEA
254	2020	06/02/2020	UDALTAINGOA	TAXI BATEN AUTO ALDAKETA ONARTZEA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA